

Koldo Mitxelena hiztezigilea


Ibon Sarasola

1 950eko hamarraldiaren erdialdean Euskaltzaindiak agindu zion Koldo Mitxelenari Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* (DVEF) hiztegiaren bigarren argitaraldia prestatzea, lehena ahitu berria baitzen. Ordurako igaroak zituen Koldok Francoren altxamendua-
ren ondorioz jasan zituen heriotza zigorra eta bi espetxealdiak, gerrakoa eta 1946-1948koa. Bukatuak zituen, orobat, Filosofia eta Letretako ikasketak, 1948an hasi zituenak, eta doktore tesia prestatzen ari zen antzinako euskararen sistema fonologikoaz. Euskaltzaindiaren mandatu hori dela medio hasten da Koldo Mitxelenaren hiztezigintza.

Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegia da dudarik gabe XX. mendearen hasiera arteko euskal hiztezigintzako lanik behinena. Baina, noski, ez zen akatsik gabea. Akats horietako batzuk bizi izan zuen garaia dagozkio. XX. mende hasierako euskaltzaletasunak, oro har, ez zuen begi onez ikusten ordura arteko euskal idazleen lana, erdarak kutsatuegia iruditzen zitzaiolako. Ikuspegi horrek erabat eragiten dio Azkueren lanari. Mitxelenak askotan aipatzen zuen adibide batek ondo argitzen du Azkueren jokaera: DVEF-en *zeru goien* esapidea agertzen da, Azkuek honela azaltzen duena: “Cielo empíreo. Voz muy empleada entre los predicadores. No sé si el pueblo se ha valido nunca de ella”. Eta galdetzen zuen Mitxelenak ea zein herrik erabiltzen zuen “cielo empíreo” bezalako esapide bat barra-barra. Ildo beretik, aski zuen hitz bat Lardizabalen *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*-n aurkitzea Zaldibiako gipuzkerakotzat markatzeko. Antza denez Lardizabalek ezin zuen euskarazko libururik irakurri, ez etxeakoaz kanpoko euskaldunen hizkerarik entzun eta erabili. Azkue hiztezigileen gabeziez gehiago jakin nahi duenak probetxuz irakurriko du Mitxelenaren *Estudios sobre las fuen-*

Koldo Mitxelena lexicógrafo

Koldo Mitxelena comienza su labor lexicográfica a mediados de la década de los 50, cuando, a petición de Euskaltzaindia, acepta encargarse de la preparación de la 2ª edición del diccionario vasco más significativo —no por



tes de Diccionario de Azkue, 1970. urtean argitaratu zuena.


Mitxelena Azkueren Hiztegi nagusiaren bigarren argitalpenari ekin zion garaian gorago aipatu dudak doktore tesia prestatzen ari zen. Bi egitasmoek bazuten gauza bat lotzen zituen: gure literatur tradizioko autoreen azterketa ahalik eta zabal-zehatzena eskatzen zuten Koldoren ustez. Horiek horrela, Mitxelena DVEF-en bigarren argitalpenari ekin zionean bi egiteko nagusi zituen: alde batetik DVEF-en lehen edizioaren azterketa kritikoa, eta bestetik literatur tradizioko autoreen azterketaren ondoriozko materialak lehen edizio horren tesuan txertatzea.

1960ko hamarkadaren bukaera aldera, DVEF-en bigarren argitalpenaren egitasmo hori aski aurreratua zegoelarik, Euskaltzaindiak konkurtso batera deitu zituen argitaletxeak, jakiteko nor eskaintzen zuen aukera onena DVEF-en bigarren edizio hori kaleratzeko. Konkurtsora aurkeztu zen José M^a Martín de Retanari Koldo Mitxelena betoa jarri zion, besteak beste *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en 36 liburu-kiak berrargitaratu zituelako inolako baimenik eskatu gabe eta autore eskubiderik ordaindu gabe, horren jabe zen Eusko Ikaskuntza Francoren diktadurak ezeztatua zuela baliatuz. Mitxelena betoari erantzunez, Retanak Azkueren DVEF-en jatorrizko edizioa berrargitaratu zuen, edizio faksimilean, Euskaltzaindiaren inongo baimenik gabe, baina euskara batuaren auzia zela-eta Mitxelena bidea gogoko ez zuten zenbait euskaltzainen konplizitateaz.

Gertakari honek erabat aldatu zituen gauzak: Azkueren DVEF berriro salgai zegoelarik, ez zen bideragarria hiztegi horren edizio "hobetua" plazaratzea. Egoera berriak erabat aldarazi zion Koldo Mitxelena prestatzeko ari zen hiztegiari buruzko planteamendua. Euskal Hiztegi bat moldatzen jarraituko zuen, baina berak nahi zuen hiztegiari ekinez. Planteamendu berri horretan, euskal literatur tradizioaren hitz ondarea izango zen hiztegiaren ardatz, hots autore zaharren eta berrien idazlanek mamituko zuten batez ere hiztegia. Aita Villasantek garaitu hartan publikatu zuen *Axularren Hiztegiaren* ildoko zerbait izango zen, baina gure literaturako autore garrantzizko guztiak bilduko zituen. Hortaz, hitz bakoitzean, gaztelaniazko baliokideaz

ello carente de errores y omisiones voluntarias e involuntarias— de la primera mitad del s. XX; el *Diccionario Vasco-Español-Francés* (DVEF) de R. M. Azkue. En ese mismo periodo Mitxelena está realizando su tesis doctoral (*Fonética Histórica vasca*). Ambos proyectos comparten la necesidad de analizar de la manera más amplia y exhaustiva posible la tradición literaria vasca.

La publicación de una edición facsímil del diccionario de Azkue, hecha sin la autorización de Euskaltzaindia, malogra y pospone la publicación de la edición actualizada y prácticamente finalizada del DVEF de Mitxelena-Euskaltzaindia. Este hecho provoca un giro radical en el proyecto lexicográfico de Mitxelena: hará otro diccionario, cuyo eje vertebrador lo conformará la literatura vasca clásica y moderna. Elegirá como corpus una muestra muy amplia de obras escritas en vasco, dotará a las palabras de su traducción castellana y completará la información con la ofrecida por otros lexicógrafos vascos (incluida la del DVEF) y con abundantes ejemplos de la palabra en los contextos utilizados.



“Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue”. 1970. L. Michelena.

eta beste hizteigileen lekukotasunez gainera, hitz horri zegozkion erabilera adibide garrantzizkoen berri emango zuen. Izan ere, hitzak esaldietan bizi dira berez, eta azken batean, hitz baten “definizioa” hitz hori agertu daitekeen esaldien multzoa da. Eta, noski, aipatu berri dugun ordura arteko euskal hizteigileen, zahar eta berrien, lekukotasunen bilketa horretan Azkueren DVEF beste hizteigileekin batera, Silvain Pouvreau, Larramendi, Harriet eta gainerakoekin batera, agertuko zen, zegozkion mailan.

1970eko hamarkadaren bukaera aldera, Mitxelenak, bere hiztegi berriari ekiteko, fitxetan bildua zuen materiala ikaragarria zen. Garaitu hartan deitu zidan, ea laguntzen nion material hura guztia antolatzen eta hiztegi forman tankeratzen. Hainbat aldiz bildu ondoren erabaki genuen Salamancara joango nintzela urte betez —bera han baitzen garai hartan katedradun— A letraren eredu bat berarekin prestatzeko. Urte hartan ikasi nuen, ia azken ñabarduraraino, zer hiztegi mota zuen Koldok buruan eta zer metodologiaz baliatu nahi zuen helburu horretara heltzeko.

Urte hartako elkarlanetik atera genuen ondorioa hau izan zen: Mitxelenaren hiztegiak, planteamendu berrian, urte ez gutxi eskatuko zituen lana zen, batez ere “ordu libreetan” egin beharko genuen lana bazen. *Impasse* hartan, aterabidea Eusko Jaurlaritzatik etorri zen. 1983ko abenduaren 28an, Mikel Zalbidetik jakinarazi zidan, Koldok eta biok Mitxelenaren Hiztegiaren egitasmoarekin aurrera egiteko prest bageunden Jaurlaritza prest zegoela horretarako baliabide guztiak jartzeko.

Jaurlaritzaren jarrera hori erabakigarria izan zen *Orotariko Euskal Hiztegia* izenpean egituratu zen hiztegiarentzat. Hari eskerrak Mitxelenaren hiztegi materialak mekanizatzeke eta informatikak dagoeneko eskaintzen zituen lan tresnez baliatzeko aukera izan genuen, eta baita erredakzio talde bat osatzeko ere. Orobat ahalbidetu zuen taxutzea euskal literatur tradizio osoaren corpus orekatu bat, garai eta euskalki bakoitzean idatzirik obra garrantzitsuenak biltzen zituena. Bost milioi hitzeko corpusa zen, hitz bakoitza bere esaldian kokatua ematen zuena, eta euskal hitz guztien historia erakusteko aukera ematen zuena. Baliabide horiekin hasi ginen lanean 1984an.

Para finales de los 70 Mitxelena tenía ya recopilada y organizada en fichas una cantidad ingente de material. Entonces me llamó para que colaborase en la sistematización del material y en su organización y presentación lexicográfica.

Un proyecto de esta envergadura y características no podía llegar a buen puerto sin una dedicación absoluta. Mikel Zalbide me comunicó el 28 de diciembre de 1983 que el Gobierno Vasco estaba dispuesto a asumir la financiación del proyecto. Esta decisión fue crucial para que el *Diccionario General Vasco* pudiera materializarse. En 1984 se empezó a trabajar con el equipo humano y el material informático necesarios para tratar un corpus literario vasco de 5 millones de palabras que reflejaba de manera equilibrada todas las épocas y dialectos literarios vascos.

A principios de 1987 estaba ya en imprenta el primer tomo y, a falta de la última corrección de las pruebas, Koldo Mitxelena murió el 11 de octubre de 1987 y no pudo ver publicado ese primer tomo, que vio la luz en diciembre de ese año. A aquel primero le siguieron otros quince tomos. Mi trabajo fue el del aparejador que junto con el equipo culminó la construcción de la casa del Diccionario valiéndonos de los planos que nos dejó Koldo.



1987. urteko hasieran lehen liburukia prest zegoen, inprenta proben zuzenketari ekiteko puntuan. Koldo Mitxelena urte hartako urriaren 11n zendu zen, lehen liburuki horren azken probak ia osorik zuzenduak zituela. Lehen liburuki hura urte bereko abenduan kaleratu zen. Ondoren etorri ziren hari jarraitu zioten beste hamabostak. Harrezkero, behin baino gehiagotan esan dudanez, nik aparejadore lana egin nuen Koldok utzi zizkidan planoekin eta lantaldearekin batera haren Hiztegiaren etxe osoa eraikitzeko.